



2023ko aurrekontua, gizarte babesa indartzeko aurrekontua

Astigarte elkarteak 25 urte bete ditu

"Sormenari bide eman, ideiak partekatu eta baliabideak ikasteko lekua da niretzat"

6

Marian,
helduen taldea.

Adingabeen garapenerako dirulgauntza

7

Iritzia

Legegintzaren balorazio orokorra egin dute hiru alderdi ezberdinek: EH Bildu, EAJ-PNV eta PSE-EE

10

2023ko udal aurrekontuak, gizarte babesa areagotzeko aurrekontuak

Astigarragako udal aurrekontua ia %7 haziko den arren, gizarte zerbitzuetako inbertsioa ia %29 handituko da.



2023ko udal aurrekontuak 11.073.605 euro izango ditu, iaz baino 634.428 euro gehiago, hau da, % 6,96ko igoera izango du. Iaz lehenengo aldiz gainditu zuen udal aurrekontuak 10 milioiko zenbakekoa eta 2023an 11 milioiko langa ere gaindituko du. Astigarragako udal aurrekontu hauek hurrengo hilabetei eta eskuartean dauden erronkei aurre egiteko aurrekontuak direla uste du Udal Gobernuak.

Batetik, Gipuzkoako Foru Aldundiak udalerrien artean banatzen duen zenbakekoa areagotu delako (Astigarragaren kasuan 505.426 euro gehiago); eta bestetik, udalaren zerga-bilketa 140.000 eurotan areagotuko dela aurreikusi delako izango da aurtengo aurrekontua handiagoa.

Hala ere, 2023ko aurrekontua bi faktorek baldintzatu dute batik bat. Lehenengoa, elektrizitatearen eta gasaren prezioen igoerak, familia eta enpresei eragin bezala, udalari ere zuzenean eragin dio. Orain arte, udalaren elektrizitate eta gas faktura 160.914 eurokoa zen, baina eskuartean dituen datuen arabera, hurrengo urtean, zenbateko hori 475.457 eurotaraino irits daiteke, hau da, ia hirukoitza. Bigarrena, Donostia Ibilbideko hiritartzearen lan finanzia-

tziazioa. Izan ere, obrak 2022ko eta 2023ko aurrekontuen kargura finantzatzea adostu zen. 2022an 735.000 euro bideratu dira eta 2023an beste 570.000 euro bideratuko dira (2023ko aurrekontuan inbertsiotarako aurreikusita dagoen zenbateko osoaren % 65a).

Horregatik eta kontuan hartuta azken hilabeteetan egoera ekonomikoak okerrera egin duela eta etorkizuneko aurreikuspenak ez direla oso onak, udalak esfortzua egin du herritar eta familia zaurgarrien babes soziala areagotzeko. Lehen aldiz, gizarte zerbitzuetako politikek 1.000.000 euroko muga gaindituko dute (1.051.661€). Iaz baino 229.284 euro gehiago (% 27,9ko igoera). Hauxe da hazkunde handiena izango duen saila.

Aipatutakoez gain, etxetzeko zerbitzuan dagoen eskariari erantzuna emateko beste 40.000 euro bideratuko dira (% 29 gehiago); familia-interbentzioetarako zenbakekoa 35.000 euro areagotuko da, 161.000 eurotaraino; orain arteko gizarte teknikari eta gizarte-langileari bigarren gizarte-langile bat gehitu zaio, batik bat, adin-txikikoen gizarte-egoera zaurgarri hobeto aurre egiteko (58.312 euro); larrialdietarako laguntzak % 11 areagotuko dira eta Kon-

txa Etxeberria forotik proposatutako dirulaguntza deialdi berri bat aurreikusi da (40.000 euro), adin txikikoen osasun, hezkuntza edo garapen prozesuetan familiek egiten duten esfortzu ekonomikoa laguntzeko helburuarekin.

Bigarren igoera handiena Hezkuntza eta Euskara sailak izango du (% 17ko igoera). Kasu honetan, lehen aldiz lanaldi osoan egongo da udalean Hezkuntza eta Euskara teknikaria. Gainera, 30.000 euro aurreikusi dira euskararen biziberritze-plana eta tokiko merkataritzan euskara sustatzeko plana idazteko. Euskararen atalean ere aipagarria da udalak Udalerri Euskaldunen Mankomunitatearen kide izateko asmoa azaldu duela eta horregatik, bertan parte hartzeko kuota aurreikusi da aurrekontuan (13.500€). Bestetik, 25.000 euro jaso dira ere hezkuntza arloko ekimen eta jardunaldiak antolatzeko.

Presupuestos municipales de 2023 para aumentar la protección social

Mientras el presupuesto municipal de Astigarraga ha crecido un 7%, la inversión en servicios sociales ha aumentado casi un 29%.

El presupuesto municipal de 2023 contará con 11.073.605 euros, 634.428 euros más que el año pasado, lo que supone un incremento del 6,96%. El año pasado el presupuesto municipal superó por primera vez los 10 millones y en 2023 superará los 11 millones. El Gobierno Municipal considera que estos presupuestos municipales son unos presupuestos para hacer frente a los próximos meses y a los retos que se plantean.

1 El nuevo ascensor de Arrobitxulo está finalmente operativo

El ascensor que une el barrio de Arrobitxulo con Santio Zeharra estará operativo todos los días, en principio de 7:00 a 23:00 horas. Más adelante, el Ayuntamiento realizará una evaluación de la idoneidad del horario para saber si adaptarlo o no.

Es el primer ascensor público situado en Astigarraga y permitirá mejorar la accesibilidad a servicios esenciales y edificios públicos como la herri eskola, el polideportivo y el Ayuntamiento.

El ascensor fue adjudicado a la empresa Construcciones Moyua, S.L. por un importe de 1.038.151,1 euros. Las obras se han alargado más de lo debido y ha sido uno de los mayores quebraderos de cabeza del Ayuntamiento en los últimos meses. El Ayuntamiento no está de acuerdo con la actitud mantenida por la empresa Construcciones Moyua, S.L. Las obras comenzaron en junio de 2021 y aunque se preveía finalizarlas en febrero de 2022, ha habido que esperar hasta diciembre para abrir el ascensor al público.

Una vez finalizadas las obras del ascensor, el Ayuntamiento urbanizará la zona, para lo que en el pleno de noviembre se aprobó un crédito adicional de 158.000 euros. Se prevé que toda esa zona sea una zona más peatonal para garantizar la seguridad de las personas usuarias, especialmente de las y los menores, y el Ayuntamiento ya está en marcha para poder adjudicar y ejecutar las obras lo antes posible.

El Ayuntamiento ya está redactando el proyecto de ejecución del próximo ascensor público que unirá la plaza de Apeztegi, en Goiko Iturri, con la plaza del Ayuntamiento. Este proyecto permitiría conectar de forma accesible la población del centro de Astigarraga con la escuela y el Ayuntamiento. Según las primeras previsiones, las obras comenzarían a finales de 2023 o principios de 2024.



1



2 Situación de Donostiako Ibilbidea

Las obras de Donostiako Ibilbidea comenzaron el pasado octubre y se están ejecutando a buen ritmo. A día de hoy ya han terminado de colocar el pavimento de la acera de la zona de Nabarra Oinatz y están trabajando con las obras de la acera del otro lado. Se prevé que las dos aceras estén terminadas este febrero. Una vez hecho esto, se instalarán las farolas y se preparará la base de asfaltado. La idea es asfaltar el paseo en marzo, colocar la señalización y realizar trabajos de pintura para que pueda abrirse a finales de ese mes.

Al mismo tiempo, una vez abierta la carretera, comenzarán con las obras de aparcamientos en el lado de los pabellones; se demolerán estos, se sanearán y se instalarán nuevos bordillos, entre otros. Y, al mismo tiempo, también realizarán labores de jardinería.



2

3 Astigarragako Udala “Zero Zabor ziurtagiria”

Astigarragako Udalak hondakinen murrizketan eta prebentzioan areagotu nahi du sortzen diren hondakinen katearen lehenengo mailan indarrak jarrita. Horregatik, interesgarria eta beharrezkoa da, tokiko erakundeak Zero Zabor prozesuan murgilduta dauden bestelako erakundeekin elkarlanean jardutea. Lan horretan dihardu, Zero Zabor nazioarteko mugimenduak, Zero Zabor Udalerriak Ziurtatzeko Programaren barruan (Zero Waste Cities Certification Programme), Europako 24 herrialdeetako 30 erakundek parte hartuta. “Zero Zabor” naturaren zikloak emulatu nahi dituen hondakinen kudeaketa-eredua da.

Udalak urtarrilaren 31eko Osoko Bilkuran onartu zuen Zero Zabor udalerriak ziurtagiri programan parte hartzea, bai eta programaren barruan Astigarragako udalari eska dakizkiokeen betekizunak eta zereginak betetzeko konpromisoa hartu ere. Auditoria eta ikuskapen programa bat da. Udalak hondakinak nola kudeatzen dituen aztertzen du eta zer nolako hobekuntzak egin behar dituen esaten dio.

Zero Zabor ziurtagiria hiru urratsek osatzen dute: Zero Zabor udalerria izateko konpromisoa hartzea, egungo egoeraren auditoretza egitea eta behin ziurtagiria lortuta jarraipena egitea.



4 Sagardotegi Zeharra

Gaur egun, Oialume auzoko ur beltzak Oialume erre-kastora isurtzen dira. Horren aurrean, PVCzko kolektore bat egitea aurreikusten duen proiektu bat idatzi da. Asmoa orain dagoen kolektorea geldiaraztea da Oialume errekastora urak isuri aurretik. Irtengune-putzu bat egingo da eta kolektore berria errekastorearen ibilguren azpitik bideratuko da. Ekimen honen bidez, Oialume errekastorearen ingurumen-baldintzak nabarmen hobetuko dira, uraren kalitatea areagotuz eta ubidean bertan eta inguruan biodibertsitatea hobeto babesteko aukerak zabalduz.

Proiektua dagoeneko onartuta dago eta Hernanirekin hitzarmen bat sinatuko da. Otsailaren 21ean Astigarragako eta Hernaniko Udalak bizilagunekin bildu ziren haien iritziak jasotzeko, eta, horren arabera, hitzarmena sinatuko da eta obra-lehiaketa abian jarriko da.

Astigarragako Udalak hartune pribatuen % 50 ordainduko du, eta gainerakoa dagokion proportzioan (gutxi gorabehera % 70 Astigarragak eta % 30 Hernanik)



5 120.000 € en tus manos: La propuesta “para iniciar la ampliación del polideportivo” ha sido la más votada en la consulta de los presupuestos participativos

El 12 de diciembre comenzó la fase final de los presupuestos participativos. Había 21 propuestas y cada astigartarra tenía que elegir un máximo de 4.

493 astigartarras participaron en la consulta y la propuesta más votada ha sido la de “iniciar la ampliación del polideportivo”, con 209 votos. La segunda propuesta más votada ha sido “la remodelación del patio escolar” con 188 votos; y la tercera, la propuesta de “puesta en marcha del servicio de ludoteca” con 186 votos. Por lo tanto, los 120.000 euros se destinarán a comenzar con la mejora y la ampliación del polideportivo.

En 2021, el Ayuntamiento realizó un estudio previo para su ampliación, que incluía valoraciones y aportaciones de la ciudadanía. Todo ello se ha tenido en cuenta a la hora de realizar la propuesta definitiva de renovación y ampliación del polideportivo.

Actualmente se encuentra en fase de redacción del proyecto de obra. El Ayuntamiento adjudicó la redacción el pasado 19 de octubre a la empresa XLark por 155.400 euros (IVA no incluido). El contrato se firmó el 15 de noviembre y está previsto que el proyecto básico esté redactado en el primer trimestre de 2023.



5

En este vídeo se puede ver la propuesta realizada por XLark



6

6 Murgian hobekuntza garrantzitsuak egingo dira

Alde batetik, argiaren maila hobetuko da, puntu berriak gehituz. Helburua Murgiako parkean erabilera ordutegiak eta segurtasuna handitzea da. Horretarako, egungo argiteriaren instalazio berria diseinatu da, eta dauden hormigoizko dadoetako batzuen ordez farolak jarriko dira.

Bestetik, jolasgunea eraldatuko da. Udalak Herri Eskolako hurrekin eta Gaztelekuko nerabeekin batera herriko parkeen inguruan parte-hartze prozesu bat egin zuen. Prozesuan ateratako informazioa izan da Murgiako haur-parkea eraldatzeko oinarria. Inguruneko elementu naturalak aprobetxatuz, haur eta nerabeentzako prestakuntza- eta esperientzazio-gune bat sortuko da. Sortuko diren jolasguneetako batzuk hondartegia (garai bateko iturria erabiliz), oreka-eremua (sareak, enborrak, harriak, sokak) eta trebatzeko eremu naturala (malda erabiliz) izango dira, besteak beste. Proiektuak 66.013,27 euroko aurrekontua izango du eta laster jarriko da martxan obra esleitzeko lehiaketa. Obra zibila martxoan hasiko da.

Astigarte elkarteak 25 urte bete ditu

Klaseak emateaz gain sorkuntzak ematen dituen aukera ezberdinei ikusgarritasuna ematea du helburu



Nahiz eta aurretik ere martxan egon, ofizialki Astigarte elkarteak 1997an sortu zen orduko irakaslea zen Luis Telleria eta garaiko ikasleek bultzatuta.

Hartatik, elkarteak herriari eta herritarrei artea zabaltzeko asmoarekin jardun da 25 urte hauetan. Arteak maite duen jendez dago osatuta eta sorkuntzak ematen dituen aukera ezberdinei ikusgarritasuna ematea izan da beraien izateko arrazoia. Alde batetik, sorkuntza nola landu irakatsiz, eta bestetik, beste modu batera erakutsiz.

Momentu honetan Rakel Salinas eta Idoia Beratarbide dira Astigarteko irakasleak eta haur zein helduei zuzendutako klaseak ematen dituzte, euskaraz. Sormena ikasleei gerturatzeko mota askotariko klaseak eta dinamika bateratuak planteatzen dituzte ikasleek espresatu nahi duten hori gauzatzeko, beti elkartearen filosofiarekin bat eginez. Helduekin gidari modura ere aritzen dira, bakoitzak egin nahi duen artelana bideratzen laguntzeko disziplina ezberdinetan: marrazketa, pintura, co-

llage-a eta irudimena lantzeko baliagarri izan daiteke ariketa oro.

Klaseak emateaz gain, artista ezberdinek emandako masterclass-ak antolatzen hasi ziren iaz, eta aurten ere dinamika horrekin jarraituko dute. Helburua artisten lan metodologia ezagutzea da ariketa ezberdinak eginez.

Urte hauetan guztietan zehar elkarteak presentzia handia izan du Astigarragan lan ezberdinak eginez herriarentzat: Astigarragako urteko egutegia collage bidez, Amets Castrejanak atera duen ikerlanaren ilustrazioak, emakumearen eguneko ekintza ezberdinak, Kulturetxearen inaugurazioan zuzendutako jarduera bat... Aurten, Astigarteren 25. urteurrena ospatzeko, erakusketa bat antolatu dute hainbat artistekin elkarlanean. Nagore Legarreta argazkilaria-ekin, besteak beste, argazki saio bat egin zuten aurretik elkartearen sortutako arropak jantzita. Jardunaldi horren emaitza Erribera Kulturgunean egon da ikusgai.

Horretaz gain, urtero erakusketa bat antolatzen du elkarteak ikasturteak eman duenarekin. Eta horrekin batera, helburua lan dinamika ezagutzea eta ikustaraztea izanik, tailer familiarak ere antolatzen dituzte. Haurrek zein helduek, arratsalde batez, elkarteak duen dinamika ezagutu dezaten.

Helduen taldeko testigantzak:

PEPA “Oso ondo pasatzen dut, asko ikasten dut eta talde handi baten barruan sentitzen naiz”.

MARIJO: “Yo pensaba que para entrar hacía falta saber dibujar, pero no es así. Aquí aprendemos y pensamos en ideas y sentimientos”.

INMA: “Nire erlaxazio eguna da. Gainerako asteari aurre egiteko pilak kargatzen ditut”.

MARIAN: “Un lugar donde expresarme creativamente, compartir ideas y aprender”.

Astigarragako 50 familiak hobariak jaso dituzte udal tasak ordaintzeko

Aurreko urtearekin alderatuta eskaera kopurua ia hirukoiztu egin da: 39 eskaeratik 2022ko kanpainarako, 90 eskaerara 2023ko hobarietan.

Azaroan Udalak 2023rako hobariak eskatzeko epea ireki zuen baliabide ekonomiko urriak dituzten herritarrek 2023ko hainbat udal-zerbitzuetako tasetan (ura, zabor bilketa, hilerriko zerbitzua eta Gaztelekuko edo Kultur Etxeko jarduerak...) onura ekonomikoak aplikatzeko.

Hiru motatako hobariak aplikatu daitezke: % 90ekoa (onuradunak tasen % 10 baino ez luke ordainduko), % 75ekoa (tasen % 25 bakarrik ordainduko luke) edo % 50ekoa (tasen erdia bakarrik ordainduko luke). Familia-unitatea osatzen duten kide kopurua eta

diru-sarrerak kontuan hartuta aplikatzen dira ehunekoak.

Momentuz Udalak 90 eskaera jaso ditu, aurreko urtearekin alderatuta eskaera kopurua ia hirukoiztu egin da. Orain arte 50 eskaera onartu dira (iaz 31 onartu ziren). Onartu diren eskaeretatik 32k jaso dute % 90eko hobaria; 9k % 75ekoa eta beste 9k % 50ekoa. 40 eskaerek ez dituzte baldintzak bete eta atzera bota egin dira.

Eskaerak aurkezteko epea urte osoan zehar zabalik egongo da.

Bonificaciones y nuevas ayudas para financiar tratamientos de menores con necesidades en el desarrollo

Este año el Ayuntamiento ha recibido ya 90 solicitudes para obtener bonificaciones en los diversos servicios municipales, casi el triple que el año anterior. Hasta el momento se han aprobado 50, que podrán beneficiarse de descuentos en los servicios de agua, recogida de basuras, servicio de cementerio y actividades del Gazteleku o Kultur Etxea.

Por otro lado, el Ayuntamiento de Astigarraga ha puesto en marcha nuevas ayudas económicas para ayudar en el coste de los tratamientos profesionales a menores con dificultades o en riesgo de padecerlas en su proceso de desarrollo.

Las ayudas podrán cubrir desde clases de refuerzo académico en asignaturas troncales hasta tratamientos de fisioterapia terapéutica, logopedia o psicomotricidad, entre otros.

El plazo de presentación de solicitudes para ambas ayudas estará abierto durante todo el año.

Adingabeen garapenean sortzen diren premiak ordaintzeko dirulaguntzak

Fisioterapia terapeutikoa, terapia okupazionala, osteopatia, logopedia, psikomotrizitatea eta errefortzu akademikoko zerbitzuak beteko dituzte, besteak beste.



Astigarragako Udalak garapen-prozesuan zailtasunak dituzten edo zailtasunak izateko arriskuan dauden adingabeei (0-17) tratamendu profesionalen kostuan laguntzeko dirulaguntza berriak martxan jarri ditu. Adingabeen garapen-zailtasunak eta, bide batez, horien eraginak eta ondorioak murriztu eta saihesteko helburuarekin Udalak orotara 40.000,00 euro jarriko ditu.

Dirulaguntzak bi ildo ditu: alde batetik, ikasgai tronkaletan errefortzu akademikorako; eta, bestetik, hezkuntza-premia bereziko tratamenduetarako (fisioterapia terapeutikoa, terapia okupazionala, osteopatia, logopedia, psikomotrizitatea...). Bi lerroak bateragarriak dira.

Gaiaren inguruko kezka Kontxa Etxeberria foroan azaleratu zen. Eusko Jaurlaritzak eskaintzen duen arreta goiztiarra motz geratzen dela (0-6 urte) eta itxaron-zerrenda luzea izaten dela ikusita, Udalak tratamenduak ordaintzeko zailtasunak dituzten herriko familiei laguntzeko ideia sortu zen.

Dirulaguntzak jaso ahal izateko, baldintza batzuk bete behar dira, besteak beste, tratamendua eta/edo errefortzua hezkuntza, osasun edo gizarte-zerbitzuen babes-sistemetakoa pro-

fesionalek proposatzea eta familiaren baldintza ekonomikoak.

Oinarriak urtarrileko tokiko gobernu batzordean onartu ziren eta jada aurkeztu daitezke eskabideak. Eskabideak aurkezteko epea urte osoan zehar egongo da zabalik, partiden zerbatekoa agortu arte.

Astigarraga eta Hernani UEMAren parte dira pasa den abendutik, euskararen ezagutzaren eta erabileraren aldea murrizteko erronkari aurre eginez

Euskararen biziberritze plana diseinatzea eta herritarren kontzientziazioan eragitea izango dituzte lehen erronkak.



UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA

Astigarraga y Hernani entran a UEMA afrontando el reto de reducir la brecha entre conocimiento y uso del euskera

Los primeros retos serán diseñar planes de revitalización del euskera e incidir en la concienciación ciudadana.

El conocimiento del euskera ha aumentado en ambas localidades, así como la diferencia entre el conocimiento y su uso, que también está aumentando. Para reducirla y profundizar en la euskaldunización de los municipios, ambos ayuntamientos quieren aprovechar la experiencia y los servicios de UEMA.

Aumentar el uso del euskera será el reto de los próximos años y, para ello, Aintzane Barandiaran, concejala de euskera, destaca dos intenciones en nombre de ambos ayuntamientos. Por un lado, incidir en la política lingüística desde la comunidad educativa, y por otro lado, diseñar un plan de revitalización del euskera.



Kronika

Bi herrietan gora egin du euskararen ezagutzak, baina aldea handitzen ari da ezagutzaren eta erabileraren artean. Alde hori murrizteko eta udalen zein udalerrien euskalduntzean sakontzeko, UEMAren esperientzia eta zerbitzuak baliatu nahi dituzte bi udalek.

Hernani eta Astigarraga udalerrri euskaldunen bilakaera soziolingustikoan adibide esanguratsuak direla adierazi zuen UEMAKo lehendakari Iraitz Lazkanok, eta horietan erabilerari eusteko ezinbestekoa dela inertziazatik kontzientziarako saltoa egitea.

UEMAko kide izateko ezinbestekoa da herriko euskaldunen indizea % 70 izatea. Beraz, langa horretara helduta, udalerrri euskaldunen artean daude Hernani eta Astigarraga. Dena dela, ezagutzaren eta erabileraren arteko aldearekin kezkatuta daude, erabilerara behar bezala aurrera eramateko aurrerantziak ari baita, eta egoera iraultzeko beharra ikusten dute.

Euskararen erabilerara handitzea izango da datozen urteetako erronka eta

UEMAn eta mankomunitatea osatzen duten herrien sarean egoteak lagundu egingo du. Ekimena ilusio handiarekin hartu dute bi udalerriek, eta euskararen erabilerara handitzea markatu dute erronka nagusi gisa denon ahaleginarekin.

LEHEN ASMOAK

Azken urteetan jende asko etorri da bizitzera Astigarragara, eta horrek aldatetako eragin ditu egoera soziolingustikoan. Horri neurriko erantzuna emateko, UEMAKo udalerriek urteetan pilatutako esperientzia eta abian dituzten ildoak oso baliagarriak izango zaizkio Astigarragako Udalarri.

Erronkari aurre egiteko, haur eta gazteak estrategikotzat ikusten dituzte bi Udalek. Horregatik, haurren eta gazteengan eragingo duten dinamika, ekimenak eta egitasmoak aurrera eramateko diseinuan asmatu nahi dute. Horretaz aparte, egitasmoaren lehen zereginetako bat euskararen biziberritze plana diseinatzea izango da.

Iñaki Otaño: "Hiriek denentzako izan behar dute"

Elkartu elkartearen lehendakaria izan den astigarrarekin hizketan aritu gara hiriko irisgarritasunaren inguruan.



Astigarragako Udalak hiriko irisgarritasun plana berrikusiko du datozen hilabeteetan. Horretarako, partaidetza prozesu berri bat martxan jarriko du hainbat hitzaldi eta bilera antolatuz, gerora, herriko eragileen eta hiritarren iritzia jaso ahal izateko. Helburua hiri inklusiboago bat lortzea da kalean eta eraikin publikoetan aurki daitezkeen trabak ezabatuz.

Irisgarritasun planaren berrikusketa Elkartu elkartearekin batera egingo du Udalak. Elkartu, Gipuzkoako Desgaitasun Fisikoa duten Pertsonen Federazio Koordinatzailea da. 40 urte baino gehiago darama lanean desgaitasun fisikoa duten pertsonen kolektiboak adierazteko, parte hartzeko, ordezkatzeko eta aldarrikatzeko.

Iñaki Otaño astigarrak hamar urtez egon da lanean Elkartun eta lehendakaria ere izan da. Duela hiru urte lana utzi zuen eta orain boluntario gisa jarraitzen du elkartearekin harremanetan.

Zer nolako gauzak egiten ditu Elkartu elkarteak?

Elkartu gipuzkoako desgaitasun fisikoa duten elkarten koordinatzailea da. Hamaika elkarte osatzen dute: AGAER, AGE, AGI, ANAIDIA, ASPARGI, BIZI-BIDE, LEZDI, BEGIRIS, KOXKA,

KEMEN eta AGADELPRISE. Batik bat, irisgarritasunaren inguruan aholkularitza eskaintzen du, baina beste zerbitzu batzuk ere ematen ditu: akonpainamendua, oporren antolaketa, orientazioa...

Zergatik da garrantzitsua hiriak irisgarriak izatea?

Hiriak denentzako izan behar dutelako. Pertsona guztiak hiriko inguruneak, eraikuntzak, garraiobideak eta komunikazio sistemak erabiltzeko eskubide eta aukera berdinak izan behar dituzte.

"En los últimos años Astigarraga se ha convertido en una ciudad bastante accesible"

Nolako da Astigarraga irisgarritasun aldetik?

Hiria azken urteetan asko berritu denez, irisgarritasun aldetik nahiko ondo dago. Hala ere, gauza batzuk hobetu behar dira oraindik. Adibidez Txingurriko biribilgunea gurutatzeko, orain obretan dagoela, gurpildun ibilgailua daramatzagunok errepidera irten behar dugu.

Baina baditu gauza onak ere. Espaloiak eta zebra-bide gehienak ondo egokituta daude. Arrobitxuloko igogailua ere hiriaren beheko eta goiko arteko irisgarritasuna hobetu du.

"Los invidentes cuentan con pavimentos adaptados para orientarse por la ciudad"

Zein kolektiborako daude gutxien egokituta orokorrean hiriak? Eta zein da kontuan gehien hartzen den kolektiboa?

Nire ustez gurpil-aulkiekin ibiltzen garenontzat daude hiriak gutxien egokituta. Eta gehien itsuentzat esango



nuke, erliebeekin egokitutako zoladurak dituztelako hirian zehar orientatu ahal izateko.

Zer iruditzen zaizu partaidetza prozesua irekitzea irisgarritasun plana berritzeko?

Oso garrantzitsua dela iruditzen zait hirian bizi den pertsona orok bere iritzia eman behar duelako.

"Las ciudades tienen que ser para todas y todos"

El Ayuntamiento de Astigarraga revisará durante los próximos meses el plan de accesibilidad de la ciudad. Para ello, pondrá en marcha un nuevo proceso de participación a través de la organización de diversas conferencias y reuniones para, posteriormente, poder recabar las opiniones de los agentes locales y de la ciudadanía. El objetivo es lograr una ciudad más inclusiva eliminando las trabas que se pueden encontrar en la calle y en los edificios públicos.

La revisión del plan de accesibilidad se realizará en colaboración con la asociación Elkartu, la Federación Coordinadora de Personas con Discapacidad Física de Gipuzkoa. El astigartarra Iñaki Otaño ha trabajado durante diez años en Elkartu siendo presidente de la coordinadora. Hace tres años dejó el trabajo y ahora sigue en contacto con la asociación como voluntario.

Legegintzaldiaren balorazio orokorra

Agintaldi honetako azken Txioaria den honetan alderdi ezberdinei EH Bilduren lau urteko legegintzaldiaren balorazio orokorra egiteko tartea eskaini zaie.

Xabier Urdangarin

EHBildu

ZALANTZARIK GABE, AGINTALDI EMANKORRA

Alderdi politikoak hika mikan hasten dira hauteskundeak hurbiltzen direnean. Ez da gure asmoa eztabaidak hauspotzea. Alderantziz, aipa ditzagun 4 urteotan egin ditugun proiektu esanguratsuenak:

- Emakumeon plazako lanak, oinezkoen espazioak areagotuz.
- Herri feministago baten alde, Emakumeon Etxea abiaraztea.
- Santiomendiko auzoaren eraberritzea.
- Hezitzaileekin batera diseinatutako haurreskola zabaltzea, 20 plaza gehiagorekin.
- Irisgarritasuna hobetzeko 1. igogailu publikoa Arrobitxulon.
- Bidegorri sarea luzatzeko, Donostia ibilbidearen hiritartzea.
- Aurreikusitako ez zituzten 2 milioi gehiago Erribera Kulturgunea martxan jartzeko.
- Kirodegia handitzeko (igerileku estalia barne) proiektua abian jartzea.
- Pump track pista arrakastatsua eraikitzea.
- Pilotalekuaren berritzea: estalkia konpondu eta hautsa gutxitzeko hesia instalatu.
- Auzotarrentzako Perurenako lokala egokitzeta.
- 4 urte galdu ostean, DBHko ikastetxea egin ahal izateko udalaren esku zeuden lan guztiak egitea 2021eko uztaileko. 2022ko azarora arte Eusko Jaurlaritzak (EAJ-PSE-EE) ez du zegokion urratsik eman eta behingoz, DBH eraikitze proiektua idazteko lehiaketa abian jarri dute.
- Udalak, Herri Eskola handitzeko proiektua idatzi zuen Jaurlaritzarentzako 2021ean. Urtebete beranduago, Eusko Jaurlaritzak abian jarri du obrak gauzatzeko lehiaketa.
- Herri bideak konpontzea, hala nola, Bidebitarten asfaltatzea eta Santio Zeharrako bihurtzea leuntzea.
- Oialumeko eta Sagardotegi zeharreko saneamendu-sarea zabaltzea, erreken osasuna hobetzeko.
- Kultur Etxe zaharraren eta aurreko lora-

tegiaren jabetza eskuratzea Fundazioarekin adostea.

- Gizarte zerbitzuetan inoizko inbertsio handiena konprometitzea.
- Euskara eta Hezkuntza sailak indartzea eta UEMAko kide bihurtzea.
- Hondakinen bilketa selektiboa %78raino hobetzea.
- Erlijio-askatasunean sakonduz, hileta zibilak ospatzeko arautegia onartzea.
- Parte hartze prozesuak: Ergobiko plaza, Emakumeon etxea, animalien ordenantza, terrazen ordenantza, jolastokiak, sagardoetxea, kultur etxe zaharra, plan orokorra, baserritarren mahaia...

Zerrenda honetan ez daude egin ditugun gauza guztiak, baina bai esanguratsuenak. Lan asko dago horren guztiaren atzean, ahalegin zintzoa. Ezin da ahaztu, gainera, pandemia.

Udal gobernua osatzen dugun EH Bilduko udaltaldeko zazpi kideon balorazioa ona da. Elkarrekin egin dugun bidea emankorra izan da eta partekatu dugun esperientzia bete-betea. Uste dugu duela lau urte astigartarroi eman genizuen hitza bete dugula eta pozik gaude egindako lanarekin.

LEGISLATURA FRUCTÍFERA

Los partidos políticos empiezan a echarse los tratos cuando se acercan las elecciones. No es nuestro estilo. Por eso, señalemos los proyectos más significativos que hemos realizado a lo largo de estos 4 años:

- Obras en Emakumeon plaza, para aumentar espacios peatonales.
- Puesta en marcha de la Casa de las Mujeres por un pueblo más feminista.
- Reforma del barrio de Santiomendi.
- Ampliar la haurreskola diseñada junto con las educadoras ofertando 20 plazas más.
- Primer ascensor público para mejorar la accesibilidad en Arrobitxulo.
- Urbanización de Donostia Ibilbidea para continuar con el bidegorri.
- 2 millones extras que no previeron para la puesta en marcha de Erribera Kulturgunea.
- Redacción del proyecto de ampliación del polideportivo, piscina cubierta incluida.

- Construcción del exitoso pump track.
 - Reforma del frontón reparando la cubierta e instalando una valla para reducir el polvo.
 - Acondicionamiento de local para la vecindad en Perurena.
 - Tras 4 años perdidos, para julio de 2021, realizamos todos los deberes que dependían del Ayuntamiento para poder construir la ESO. Durante largo tiempo el Gobierno Vasco (PNV-PSE-EE) no ha dado ningún paso y finalmente, en noviembre de 2022, han puesto en marcha el concurso para la redacción del proyecto de construcción.
 - El Ayuntamiento redactó el proyecto de ampliación de la Herri Eskola para el Gobierno Vasco en 2021. Un año más tarde, el Gobierno Vasco ha puesto en marcha el concurso para la ejecución de las obras.
 - Reparación de caminos urbanos, como el asfaltado en Bidebitarte y ensanchado de curvas de Santio Zeharra.
 - Ampliar la red de saneamiento de Oialume y Sagardotegi Zeharra para mejorar la salud de los arroyos.
 - Acordar con la Fundación la adquisición de la antigua Casa de Cultura y del jardín adyacente.
 - Comprometer la mayor inversión de la historia en servicios sociales.
 - Potenciar los departamentos de Euskera y Educación.
 - Mejorar hasta un 78% la recogida selectiva de residuos.
 - Ahondando en la libertad religiosa, aprobamos el reglamento para la celebración de funerales civiles.
- En esta lista no están todas las cosas que hemos hecho, pero sí las más significativas. Hay mucho trabajo y un esfuerzo sincero detrás de todo esto, sin olvidar la pandemia.

La valoración de las siete personas de EH Bildu que integramos el gobierno municipal es muy positiva. La experiencia que hemos compartido ha sido realmente intensa y terminamos la legislatura con la convicción de que hemos cumplido con el compromiso que adoptamos hace cuatro años.

Roxali, Aitor, Esti, Andoni,
Ione, Aintzane, Xabier

Nerea Zusberro

EAJ-PNV

BALIO GABEKO PROMESAK

Legegintzaldi hau amaitzen ari da, beraz, balantzea egiteko garaia iritsi zaigu. Egin dezagun ia lau urte haue-tan zehar garatutako proiektuen errepasoa.

2019ko azaroaren 29an inauguratu zen ibai-parkea, Gipuzkoako handie-na orain arte. Ondoren, Kultur Etxe berria 2020ko irailaren 12an irekiko zen. Bai, hilabete batzuk baino ez zi-ren igaro EH Bilduk alkatetza hartu zuenetik azken hamarkadetan Astigarragarako proiekturik garrantzi-tsuenetako bi inauguratu zituzten arte. Nola izan zitekeen? Biak aurre-ko legealdian EAJ-PNVk abiarazita-ko proiektuak zirelako, Urumea Ber-ri auzoa osorik garatzea ahalbidetu zuen lortutako akordioari esker.

Ondoren, Arrobitxuloko igogailua iri-tsiko zen, 2022aren amaieran. Nahiz eta jeltzaleek hasitako proiektua izan, EH Bilduk ia lau urte behar izan ditu gure herriko irisgarritasunerako ezinbesteko proiektu bat martxan jartzeko.

Non daude EH Bilduren proiektuak? Abertzaleek 2019ko hauteskunde kanpaina agindu zuten alkatetza lortuz gero Astigarragak DBH zen-tro bat izango zuela. Bere kanpainaren giltzarria izan zen eta, ziur aski, gehiengo absolutua lortzera bultza-tu zituen promesa. Lau urte geroa-go, DBHk utopia izaten jarraitzen du Astigarragan. Eraikitzen ez hasteaz gain, proiektuaren idazketa ere ez da hasi. Zarata handia eta intxaur gutxi.

Eta Sagardoetxea? Gobernu aber-tzaleak parte-hartze prozesu luze bati ekin zion eta sagardoaren mu-seoaren etorkizunari buruzko herri galdeketa jarri zuen abian. Zinismo ariketa bat besterik ez zen izan. EH Bilduk behin eta berri mesprexta-zen du gure herriko sektore gar-rantzitsuenetako bat. Izan ere, hori ez da izan egungo udal gobernuak sagardogileei egin dien mespretxu bakarra. Gogora dezagun legealdi honetan Txotx Berri herrikoia alde batera utzi dutela, eta herria sa-gardotegiekin konektatzen zituen 'Txotx Bus'a ere kendu zuten.

Laburbilduz, EH Bilduk, lau urte ge-roago, EAJk ereindakoa jasotzen ja-rraitzen du. Zein izango da beteko ez duten hurrengo promesa?

PROMESAS INCUMPLIDAS

Tras casi 4 años, la presente legisla-tura llega a su fin. Y, por tanto, llega el momento de hacer balance.

El 29 de noviembre de 2019 se inau-guró el parque fluvial. Después, lle-garía la apertura de la nueva Casa de Cultura el 12 de septiembre de 2020. Sí, sólo pasaron unos meses desde que EH Bildu tomara la al-caldía hasta que inauguraran dos de los proyectos más importantes para Astigarraga en las últimas déca-das. ¿Cómo pudo ser? Porque am-bos fueron proyectos iniciados por EAJ-PNV en la legislatura anterior.

Después llegaría el ascensor de Arrobitxulo, a finales de 2022. Pese a que también fue un proyecto ini-ciado por el PNV, EH Bildu ha tarda-do casi cuatro años en poner en fun-cionamiento un proyecto vital para la accesibilidad en nuestro pueblo.

¿Dónde están los proyectos de EH Bildu? Prometieron en su campaña electoral que si lograban la alcaldía Astigarraga tendría un centro de DBH. Fue la piedra angular de su campaña y, probablemente, la pro-mesa que les hizo lograr la mayoría absoluta. Cuatro años después, si-gue siendo una utopía. Ni siquiera se ha comenzado a redactar el proyec-to. Mucho ruido y pocas nueces.

¿Y la Sagardoetxea? El grupo aber-tzale realizó una consulta popular sobre el futuro del museo. No fue más que un ejercicio de cinismo por su parte. EH Bildu desprecia, una y otra vez, a uno de los sectores más relevantes de nuestro pueblo. Re-cordemos que durante la presen-te legislatura también suprimieron el Txotx Berri popular y se retiró el 'Txotx Bus'.

Cuatro años después, EH Bildu sigue recogiendo lo que EAJ-PNV sembró. ¿Cuál será su siguiente promesa in-cumplida?

Mikel Duran

PSE-EE

Amaituko den legegintzaldian, batez ere, Covid-19aren pande-miak eta herritarren, merkatari-tzaren eta ostalaritzaren artean eragin zituzten ondorio sozial eta ekonomiko larriek hartu dute parte.

Hori dela eta, Astigarragako PSE-EEK erantzukizun-ariketa bat egin zuen astigartarrekin, egoera larri horrengatik inor ba-besik gabe gera ez dadin. Mer-kataritza eta ostalaritzarako zein gure familientzako diru-lagun-tzak, laguntzak eta bonuak mar-txan jartzen lagundu dugu.

PSE-EEK beti lagunduko ditu gure udalerrientzat estrate-gikotzat jotzen ditugun proiek-tuak, hala nola Tren geltokiaren eraikuntza, bigarren hezkuntza-ko institutu berria edo ambulato-rio berria. Proiektu horiek Eusko Jaurlaritza koalizioaren eskutik datoz (EAJ eta PSE-EE), eta es-pero dugu hurrengo legegintzal-dian errealitate izatea.

La legislatura que va a finalizar ha estado principalmente pro-tagonizada por la pandemia del Covid-19 y por las graves conse-cuencias sociales y económicas que provocaron entre la ciuda-danía, el comercio y la hostelería.

Por ese motivo, desde el PSE-EE de Astigarraga hicimos un ejer-cicio de responsabilidad con los astigartarras para que ninguno de ellos se quedará desprote-gido por esta grave situación. Hemos apoyado la puesta en marcha de subvenciones, ayudas y bonos tanto para el comercio y la hostelería como para nuestras familias. Desde el PSE-EE siem-pre vamos a apoyar proyectos que consideramos estratégicos para nuestro municipio como la construcción de la estación del Tren, el nuevo instituto de secundaria o el nuevo ambula-torio. Proyectos que vienen de la mano del Gobierno Vasco de coalición (PNV y PSE-EE), y que confiamos sean una realidad en los próximos años.

egunero da martxoak 8



Martxoak 3

17:00-19:00 | Joseba Barandiaran plazan

Haur eta gazteentzako ekintzak (adinaren arabera antolatuta). Emakume erreferenteak, emakumeen papera eta aukerak ikustarazteko xedearekin. Xaguxar aisialdi-taldearen eskutik. Actividades para niñas, niños y jóvenes con el objetivo de visibilizar el papel de las mujeres en diversos ámbitos.

Martxoak 4

18:00-20:00 | Gaztelekuan

Sukaldaritza erotiko maskulinoa tailerra
Taller cocina erótica masculina

Martxoak 4

20:00 | Erriberan

Luze edo motz, binakako bakarrizketa ikuskizuna (Mirari Martiarena eta Idoia Torregarai), Espectáculo que toma el género como tema de humor

Martxoak 6-10

Lehiaketa sare sozialetan, emakume esanguratsuei buruzko galderak erantzun beharko dira. Gaztelekuak antolatuta. Concurso en redes sociales, se deberán responder preguntas sobre mujeres significativas en diversos ámbitos.

Martxoan zehar

Gaztelekuan

Monografikoa, hainbat arloetan esanguratsuak diren emakumei buruzkoa.

Monográfico sobre mujeres significativas en diversas disciplinas

Martxoak 8

12:15 | Udaletxe aurrean

Konzentrazioa. Concentración

18:00 | Emakumeon Etxetik

Manifestazioa Emakumeon Etxetik hasita, herritik eta gero Donostiara autobusean (18:40) Emakumeon Etxea eta Gazte Asanbladaren eskutik. Manifestación

Martxoak 10

20:00 | Erriberan

Elbira. Elbira Zipitriari buruzko dokumentala.
Documental sobre Elbira Zipitria

Martxoak 11

11:30 | Emakumeon Etxean

Solasaldia: "Musika: bizipenak eta generoa".
Emakumeon Etxea eta Gazte Asanblaren eskutik.
Charla: "Música: vivencias y género"

14:00 | Emakumeon Etxean

Bazkaria. Emakumeon Etxea eta Gazte Asanbladaren eskutik. Comida

16:00 | Emakumeon Etxean

Jam sesioa. Emakumeon Etxea eta Gazte Asanbladaren eskutik. Sesión Jam

20:00 | Erriberan

AMARAun, amatasunari buruzko emanaldia (Oihana Iguaran eta Amaur Luluaga). Espectáculo sobre la maternidad

Martxoak 26

19:00 | Erriberan

"Ellas hablan" filma feminista.

Gora borroka feminista!

¡Viva la lucha feminista!



Astigarragako Udala
Foru Enparantza 13
20115 Astigarraga
Tel: 943 335050
udala@astigarraga.eus
www.astigarraga.eus

